



2021/2022 denboraldia

3. ZIRKULARRA

ORDUTEGIEN TAULA ETA EGUN ALDAKETAK

Partiden egutegiak

Federazio jarduera koordinatzeko eta hobetzeko, gutxienez 10 egun lehenago partiden ordutegiak erraztea iradokitzen zaie klubei.

Ordutegi horiek Federazioaren web orriko ordutegien aplikazioan sartu beharko dira **NAHITAEZ ASTELEHENERO GOIZEKO 08:30AK BAINO LEHEN.**

Aipaturiko betebeharra **hirugarren aldiz hausten bada**, indarreko diziplinazko araudietan ezarritakoaren arabera **zigortuko da.**

Infantilen eta kadeteen mailetako taldeek posible dute beraien partidak larunbat goizera edo arratsaldera aurreratzea aurkariaren baimenik gabe. Gainontzeko mailek, hau da, **jubenilek eta afizionatuek, aurkariaren baimena beharko dute larunbatean 15:30ak baino lehenago jokatu nahi badute.**

2008ko ekainaren 28ko Batzar Nagusian iritsitako akordioaren arabera, partida jokatu behar duten klubek herrien arteko **distantzia kilometrikoa 50 km baino handiagoa bada**, partidaren hasierarako ordu-tarte bat ezarriko da: **goizeko 11:00etatik arratsaldeko 17:30etara, betiere aurreko paragrafoan jartzen duena errespetatuz.**

Klubak proposatutako **edozein ordutegi aldaketa asteleheneko 13:00ak baino beranduago egiten bada, AURKAKO TALDEAREN ADOSTASUNA eta EPAILEEN BILTZAR TEKNIKOAREN BAIMENA beharko dira** nahitaez. Gogorarazi nahi da, partiden egunen eta ordutegien aldaketak eskatzeko egiten diren etengabeko eskariak ikusita (gehienak justifikaziorik gabekoak), **Gipuzkoako Epaileen Biltzar Teknikoak**, Gipuzkoako Futbol Federazioaren babesarekin, **ez duela baimenik emango klubak hasiera batean bidalitako orduen eta egunen proposamema aldatzeko, salbuespenezko ezinbestekoak edo ezustekoak ez badira** behintzat. Hori dela eta, ordutegiak eta egunak ezartzeko izapideak ardura handiz egitea eskatzen dizuegu.



Partiden egun aldaketak


Euskadiko Futbol Federakundeko Araudi Orokorrean azaltzen den **Lehiaketan III. Liburuko 4. ataleko 95 artikulua** hitzez hitz jaso dugu, bere garrantzia eta eragina kontuan izanda:

"Dagokion Federakundeak, egoera bereziak ematen direla eta, eta jolastu behar duten bi klub edo K.E. etako batek eskatuta, bestearen baimenarekin, partidu konkretu bat aurreratu ala atzeratu dadila baimendu dezake, beti ere egutegi ofizialean ezarritako beste partiduen ordena aldatzen ez baldin bada, noski".

Esandakoa bete dezazuen eskatzen dizuegu; ordutegia aurrez jakiteak federazioko estamentu guztien plangintza hobetzea ekarriko luke.

Donostia, 2021eko abuztua

GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOA
FEDERACION GUIPUZCOANA DE FUTBOL


Iñigo Letamendi Artetxe
Idazkari Nagusia-Secretario General